

MIGUEL VÁZQUEZ / EFE



Mirariaren bila, engainua topatu

Bizitzako arazo larrietan babesaren xerka abiatzen da jende asko; baina, irtenbideen ordeztu, menpean hartu eta nortasuna suntsitu nahi dieten elkarteak topatzen dituzte: sektak edo talde totalitarioak

IDURRE ESKISABEL

Bizitza gogorra da eta jende guztiak izaten ditu gorabeherak. Gainera, gizartean aldaketa ugari gertatu da azken urteetan: betiko sinesmenak gain behera etorri dira, ideologia handiek indarra galdu dute, bizimodua indibidualizatu egin da eta, ondorioz, garai batean krisiei irtenbide emateko erabiltzen ziren heldulekuak ahuldu egin dira.

Erantzun eta tresna berrien bila dabil jende asko; arazoak eta noraeza gainditzeko laguntzaren bila. Miraria nahi izaten da sarri: barne mina bat-batean sendatzeko aurkikuntza handia. Testuinguru horretan, krisiei aurre egiteko proposamenak ugaritu egin dira. Nor bere buruarekin gusturago sentitzeko eskaintzak asko dira: terapia, metodo, erlijio, pentsaera berrien iragarpenak leku askotan topa daitezke. Batzuk baliagarriak eta zintzotasunez jendeari laguntzeko asmoz egindakoak. Beste batzuk arriskutsuak: zoriona saldu eta talde edo buruzagi batekiko menpekotasuna baino ematen ez dutenak.

Sekta deitu izan zaie liderraren pro-

betxurako jarraitzaileen izaera suntsitzen duten elkarte horiei; baina, hitz horrek dituen esanahi ugarietaz ohartuta, talde totalitario adiera nahiago dute arazo hori aztertzen duten aditu askok.

Talde totalitarioa edo sekta zer den zehazki esatea ez da gauza erraza. Izan ere, sarritan labain askoa izaten da erlijioen, alderdien, beste zenbait elkarrekin eta sekten arteko muga. Eztabaida ugariaren jatorri ere izaten da: sekta bat edo erlijio bat dira Jehovaharen Lekukoak? Eta Opus Dei? Sektarik handiena Eliza Katolikoa bera dela irizten diotenak ere badira.

Sinesmenak zilegi, praktikak ez

Illo horretatik, talde totalitarioen nolabaiteko zehaztapena egin dute sekten mende erortzen den jendearen laguntzan ibiltzen diren aditu eta erakundeek. «Taldea bat sektarioa edo totalitarioa den erabakitzeak guk ez diegu bultzatzen dituen sinesmenei erreparatu. Hau da, guretzat sinesmen guztiak dira zilegi: estralurtarretan sinestea, ez dakit nolako jainko batengan sinestea, meditazio sistema

batzuetan edo gizarte eredu jakin batean. Hori libre da, eta libre behar du. Kontua da sinesmenez aparte talde horrek zer-nolako jarrerak bultzatzen dituen, nolako talde praktikak erabiltzen dituen: kideak familia edo lagunekin apurtzera bultzatzen dituzten; haien jokabideak erabat arautu eta kontrolatzen dituzten; askatasunik ematen ote zaien taldearekiko edo buruzagiarekiko kritiko izateko... Horiek dira gure irizpideak», azaldu digu Jantxo Dominguez nortasunaren suntsigarri diren sekten inguruan prebentzioa bultzatu eta aholkularitza ematen duen Larrantza elkarteak arduradunak.

Azken batean, gizabanakoak taldearen edo buruzagiaren menpe jartzea xede duten elkarteak izango lirateke sekta edo talde totalitarioak, berdin kutsu erlijiosoa, terapeutikoa edo

beste eraren batekoa izan. Hala iruditzen zaio, behintzat, Miguel Perlado Recacher psikologo klinikoari —AIS Bartzelonako Sektei buruzko Informazio Elkartearen kidea da—. «Funtsean, ideia edo buruzagi bati miresmen gehiegizkoa adierazten dioten taldeak dira sektak. Baina, horrez gain, pentsamenduaren kontrola eta manipulazioa erabiliko ditu; kideei taldearekiko dependentzia sortzen diete eta esploatatu egiten dituzte taldearen izenean; eta, azkenean, kalte egingo diete: zenbait kasutan haien ondasunez jabetuko dira, baina, oro har, psikikoki erabat ahuldutako dituzte, nahastu, kasu larrietan nortasuna suntsitzeraino», agertu du Perlado Recacherrek.

Dibortzioak, suizidioak, ondasun galerak...

Hain zuzen ere, talde sektarioetan jarraitzaileen jokabideak aldarazten dituzte. Hasieran, harreman goxoa eskainiko zaio lagun heldu berriari: entzun egingo diote, babesa emango, bere arazo guztiak aurre egiteko irtenbide simple samarrak eskainiko zaizkio; ongi sentiaraziko dute. Pixkanaka, ordea, exijentziak etorriko dira: gero eta denbora eta baliabide gehiago eman beharko dizkio jarraitzaileak taldeari, haren ekintza guztien inguruko kontrola areagotuko... Azkenean, norberaren erantzun eta erreazioak deuseztatzea izango da helburua. Ara-

Pentsamenduaren kontrola eta manipulazioa erabiltzea da sekten ezaugarrietako bat

hurrengo orrialdean jarraitzen du